

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua burutzeko arrazoia, etxe eta maskotak zaindu nahi dituzten pertsonen eta euren maskotak arduraz zainduko dituztenen arteko lotura sortzea da. Ondorioz, hau izango da futsezko jarduera nagusia, enpresako lau langileok bezeroen laguntzarekin burutuko duguna.

Gure enpresak bezeroentzako arreta-zerbitzu eraginkorra eskaintzen du. Bezeroek kezka, kexa edo arazoak izanez gero, gure aplikazioan eskuragarri dagoen telefono zenbakira dei dezakete. Lan-ordutegian, pertsona bat egongo da haien kontsultak argitzeko; hala ere, zerbitzua ez da 24 ordukoa izango.

Finantza-arloaren ardura duen pertsonak diruaren administrazioa eramango du, kontabilitatea, prezioak ezarri eta zerbitzuen diru-sarrerak kontrolatuko ditu. Gainera, krisialdi ekonomikoak saihesteaz arduratuko da, kontrol ekonomikoa bermatuz eta dena ondo doala ziurtatuz.

Bezeroei dagokienez, bi talde bereizten ditugu:

1. **Maskotak zaindu nahi dituztenak:** Pertsona hauei elkarrizketak egingo zaizkie, beraien inguruko informazio pertsonalagoa lortzeko eta bezero fidagarriak direla ziurtatzeko.
2. **Maskotak zaintzeko etxea uzten dutenak:** Hauei ere elkarrizketak egingo zaizkie, etxearen baldintzak eta beraien informazio pertsonala ezagutzeko, baita kanpoan egongo diren denbora jakiteko ere.

Elkarrizketa hauek bideodei bidez egingo dira, eta horien ardura duen pertsonak beste lan batzuk ere izango ditu.

Langileak kontratatzeko, pertsona bat arduratuko da hautagaiei elkarrizketak egiteaz; elkarrizketa hauek ere bideodei bidez izango dira.

Azkenik, gure aplikazioaren diseinuaz arduratuko den pertsona bat izango dugu. Honek aplikazioaren logotipoa, lema, koloreak eta merchandisingeko diseinuak sortuko ditu. Pertsona hau gure lantoki fisikoan egongo da, diseinurako gela batean.